

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## LHko tituludunek unibertsitate-ikasketetan 30 kreditu arte baliozkotzeko aukera izango dute datorren ikasturtetik aurrera

*Xede horretarako, Iribas kontseilariak esparru-hitzarmenak izenpetu ditu Nafarroako unibertsitateetako errektoreekin*

Jueves, 16 de mayo de 2013

Foru Gobernuak esparru-hitzarmenak izenpetu ditu gaur [Nafarroako Unibertsitate Publiko](#)arekin (NUP) eta [Nafarroako Unibertsitate](#)arekin (NU) goi-mailako prestakuntza-zikloetako tituludunei 30 kreditu arte baliozkotzeko aukera emateko, zentro horietako graduko beren unibertsitate-ikasketetan. Neurria 2013-2014 ikasturtean aplikatuko da.

Testuak gaur eguerdian sinatu dituzte Nafarroako Jauregiko Areto Berdean. Sinatzaileak ondorengoak izan dira: Hezkuntza kontseilari José Iribas eta bi unibertsitateetako errektore Julio Lafuente (NUP) eta Alfonso Sánchez-Tabernero (NU). Testuek graduko titulazioen eta lanbide heziketaren (LH) arteko harremanak finkatzen dituzte, bai eta eska daitezkeen baliozkotasunak ere.

Horretarako, azken urte eta erdian negoziazio-prozesu bat egin da Hezkuntza Departamentuko eta aipatutako unibertsitateetako teknikariekin izan daitezkeen baliozkotasunak zehazteko, graduko unibertsitate-tituluak lortzera bideratzen diren ikasgaiei lotutako eskumen eta ezagutzen arteko baliokidetasunak kontuan hartuz, eta baita goi-mailako prestakuntza-zikloetakoak ere.

Zehazki, diziplina arteko bost batzorde sortu dira, eta hainbat prestakuntza-ziklo eta unibertsitate-karreretako adituek osatzen dute ezarri ziren ezagutzako bost adarren inguruan. Arlo horiek honako hauei dagokie: gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak, osasun-zientziak, ingeniari eta arkitektura, arteak eta giza zientziak eta zientziak.

Baliokidetasun horiek egin ahal izan dira goi-mailako LHko zikloak goi-Hezkuntzako espazio europarrean sartu direlako (Bologna Plana), unibertsitate-ikasketekin partekatuta.

Prozesua erraztu da, gainera, prestakuntza-zikloak Hezkuntzako



Iribas kontseilaria, erdian, alboan NUPko (ezkerrean) eta NUko (eskuinean) errektoreak alboan dituela, bai eta LHko eta bi unibertsitateetako ordezkariak ere.

2/2006 Lege Organikora egokitu direlako, irakaskuntzak kreditutan antolatzen dituen; hala, unibertsitate-ikasketen eta LHren artean baliokidetasunak errazago finka daitezke.

### Hitzarmenak

Gaur sinatutako hitzarmenak izaera orokorrekoak dira, titulazioen bidez berariazko akordioekin zehaztu beharko da, eta bertan tituluen eta aldeek aitortutako kreditu-kopuruaren arteko harremana erabakiko da. Nolanahi ere, esparru-hitzarmenean ezarritako kredituak aitortuko dira eta haien aplikazioa bermatuko da 2013-2014 ikasturtetik aurrera.

Alde guztiek, gainera, berariazko akordio horiek berraztertze eta eguneratzeko konpromisoa hartzen dute, titulazioek aldaketak izaten badituzte edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak irizpideak aldatzen baditu, hitzarmenak indarrean dauden bitartean; hasiera batean bi urterako hitzarmenak dira, baina urte baterako, isilean luza daitezke aldeetako batek kontrakorik esaten ez badu behintzat.

Gainera, egiaztatu beharko dute alegatutako ikasketek curriculumei eta ikasketa-planei eskatutako baldintzei erantzuten dietela, eta haiek gainditzeak beharrezko kualifikazio profesionala bermatzen du.

Hitzarmenen edukia jarraitu eta interpretatzeko batzorde paritarioak (unibertsitate bakoitzeko bat) sortuko dira, eta haiek alde bakoitzeko bi ordezkariarekin osatuko dira. Batzorde horiek honako honetaz arduratuko dira: urteko lan-plana eta jarduketan urteko memoria egiteaz, informazioa trukatzear, gertakarien jarraipena egiteaz eta betebeharrak betetzen direla zaintzeaz. Urtean behin bilduko dira, gutxienez.

### Galería de fotos



Iribas kontseilaria eta Lafuente errektorea (NUP) hitzarmena izenpetzen.



Iribas kontseilaria eta Sánchez-Tabernero errektorea (NU) hitzarmena izenpetzen.